

AURREKO JOEREN BAIEZTAPENA

Eguzki Urteaga

Soziologiako Irakaslea

Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: eguzki.urteaga@ehu.es

SARRERA

2006ko Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketak aurreko inkestetan agertutako joera nagusiak baieztatzen ditu, ipar Euskal Herriari dagokionez behintzat, bai erabileraren mailan, bai erabileraren bilakaeraren mailan. Aitzitik, berezitasun batzuk agertzen dira, udalerrietako biztanleriaren eta adin-taldeen arabera, funtsean eraldaketa sozioekonomiko, jario migratorio eta hizkuntza politiken ondorioz.

EUSKARAREN ERABILPENA

2006ko datuek erakusten dute, Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Zuberoako biztanleriaren %4,6ak euskara erabiltzen duela, adin-taldeen arabera ezberdintasunak egon arren. Izan ere, haurren %4,8ak Axularren hizkuntza baliatzen badu bere eguneroko bizian, soilik gazteen %3,6ak kalean erabiltzen du. Proportzioa zertxobait handiagoa da helduen tartean (%4) eta, batez ere adinduen mailan (%7,6). Bestela esanda, are eta zaharragoa izan eta are eta euskara gutxiago baliatzen da, nahiz eta haurren berreskuratze prozesu bat ageri den, zeren haurrak euskararen erabiltzaile handienak dira adinduen ostean.

Horrek erakusten du, euskararen erabilpen maila ahula bada eta beherakada prozesu bat nabari bada, zaharrek gazteek baino gehiago baliatzen baitute, haurrek mailari eusten diotela. Horren arrazoi nagusia euskarazko irakaskuntzaren hazkundera da, kontutan izanik ipar Euskal Herriko ikasleen %29ak euskara eskolan ikasten duela, murgiltze ala elebidun sistemetan, eta %6ak ikastoletan izena ematen duela. Urtetik urtera, euskara eskoletan lantzen duten ikasleen kopuruak gora egiten du, nahiz eta batez ere sistema elebidunaren mesederako izan, esan nahi baita elebidun hartzaileen kopurua elebakar euskaldunena baino azkarrago igotzen dela.

Hala eta guztiz ere, haurren baitan nabari den berreskuratze prozesua datuek erakusten dutena baino goragoa dela pentsa daiteke zeren,

Euskararen erabilpen maila ahula bada eta beherakada prozesu bat nabari bada, zaharrek gazteek baino gehiago baliatzen baitute, haurrek mailari eusten diotela. Horren arrazoi nagusia euskarazko irakaskuntzaren hazkundera da, kontutan izanik ipar Euskal Herriko ikasleen %29ak euskara eskolan ikasten duela, murgiltze ala elebidun sistemetan, eta %6ak ikastoletan izena ematen duela.

demografikoki, balaunaldi berriak aurrekoak baino txikiagoak dira, gurasoek haur gutxiago egiten dituztelako eta ipar Euskal Herriaren kanpotik datozen gurasoak eta beraz haurrak geroz eta gehiago baitira. Balaunaldi eta jatorri geografiko aldagaien eragina ezereztu ezkerro, berreskuratze prozesua nabariagoa litzateke.

EUSKARAREN ERABILPENAREN BILAKAERA

Euskararen erabileraren bilakaerak beherakadarako joera erakusten du ipar Euskal Herrian, jakinik erabilera hori %6,5ekoa dela 1993an, %6,3koa 1997an, %5,8koa 2001ean eta %4,6koa 2006an, hau da, %1,9ko galera izan dela azken 13 urteetan. Joera horri heutsi ezkerro, erabilera %2,7koa izan litzateke 2019ean eta %0,8koa 2032ean. Ahaztea da, pixakanaka bada ere, euskara sustatzeko eta indartzeko hizkuntza politika garatzen doala eta euskarazko irakaskuntzak gora egiten duela.

Beherakada hori, adin-talde guztietan nabari da eta, batez ere, helduen eta adinduen baitan. Hain zuzen ere, euskararen erabilpena modu jarraikian jaisten da 1993 eta 2006aren artean, %6,2tik %4ra beheratuz, zeren %6,2koa da 1993an, %6koa 1997an, %5,4koa 2001ean eta %4koa 2006an. Beherakada are eta nabariagoa da adinduen mailan, kontutan izanda, 13 urtean, %11,3tik %7,6ra igaro dela. Izan ere, euskararen erabilera %11,3koa da 1993an, %10,5ekoa 1997an, %8,9koa 2001ean eta %7,6koa 2006an. Joera horren arrazoiak anitzak dira, hala nola, ez dutela euskara eskolan ikasi, ez daukatela eguneroko bizian euskara erabiltzeko aukera handirik geroz eta pertsona gehiago kostaldeko hirietan bizi baitira eta lana zein zerbitzuak bertan aurkitzen direlako, eta ez dutela euskara baliatzeko premiarik, ez lanean, ez administrazioarekiko harremanetan, ezta ere familiarekiko loturetan.

Haurren eta gazteen mailetan gertatzen dena bestelakoa da. Hain zuzen ere, euskara erabiltzen duten haurren kopurua mantentzen, baita pixkabat igotzen da 1993 eta 2001en artean, %5,1etik %5,2ra igaroz, ordoan %4,8ra jaisteko.

Alderantziz, hizkuntza horren erabilera %3,2tik %2,7ra beheratzen da, 1993 eta 2001aren tartean, 2006an %3,6ra igotzeko, hau da 13 urte lehenagoko maila gailentzeko. Itxuraz kontraesangarriak diren joera horiek ulertzeko, euskarazko irakaskuntzaren eta demografiaren datuak kontutan izan behar dira.

Hala ere, Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Zuberoa, euskararen erabilpena beheratzen ikusten duten Euskal Herriko probintzia bakarrak dira, Nafarroa Garaian egonkortasuna nagusi delarik, galera soilik %0,1ekoa baita. Izan ere, 1993 eta 2006aren artean, galera %1,9koa bada ipar Euskal Herrian, irabaztea %0,8koa da Araban, %7,2koa Gipuzkoan eta %1,3koa Bizkaian. Euskararen ezagupen ofizialak eta osatu zein martxan jarritako hizkuntza politikak eragin zuzena dute ezberdintasun horietan.

EUSKARAREN ERABILERA BIZTANLERIAREN KOPURUAREN ARABERA

Euskararen Erabilaren V. Kale Neurketak lau udalerrri mota bereizten ditu: 5000 biztanletik beherakoak, 5000-10000 biztanlekoak, 10000-25000 biztanlekoak eta 25000-50000 biztanlekoak.

Batez ere barnealdean kokatzen diren lehen udalerrri motan, euskararen erabilpenak beherakada nabarmena ezagutu du 1997 eta 2001aren tartean, %15,7tik %11,9ra igarotzen baita, ondoren jaitsiera lehuna ezagutzeko, galera %0,9koa baita. Gain-beheraren leuntze hori herri txikietan dagoen euskararen ezagutza maila gorari, euskara haurrei transmititzearen beharraren kontzientzia hartzeri eta euskarazko irakaskuntza eskaintzatzen hedapenari lotua dago. Adin-taldekako datuak esanguratsuak dira zeren, orohar, gazteen, helduen eta adinduen baitan, euskararen baliapenaren beherakada argia bada, aurkakoa gertatzen da haurren mailan. Izan ere, 1997an umeen %8,9ak hizkuntza hori baliatzen badu, %11,1ak erabiltzen du 2001ean eta %13,4ak 2006an, hots, 4,5 punduko gorakada bat nabarmentzen da.

Taula 1: Euskararen erabilpena adin-taldeka eta 1997 eta 2006aren artean 5000 biztanletik beherako udalerrietan

Neurketa	1997	2001	2006
Euskararen erabilpena	%15,5	%11,9	%11,0
Haurren erabilpena	%8,9	%11,1	%13,4
Gazteen erabilpena	%8,4	%5,1%	%2,1%
Helduen erabilpena	14,4%	8,6%	%11,9
Adinduen erabilpena	33,2%	24,2%	%15,1%

Azpirarratzekoa da, helduen erabilpenak gora egiten duela 2001 eta 2006aren tartean, batik bat beraien hurrek eskolan euskara geroz eta gehiago ikasten dutelako, gurasoek horrela erabaki dutelako, eta seme-alabekin hizkuntza hori baliatzen ahalegintzen baitira, bai umeen eskolazteaz jarraitzeko, bai familia bizian euskara erabiltzeko.

Bigarren udalerrri motan, alegia 5000-10000 biztanle dituztenetan, euskararen baliapenak, 1997 eta 2001aren tartean sendotze fase bat ezagutu ondoren, %6,2tik %7ra pasaz, geroztik beherakada nabarmen bat ezagutu du, erdira igaroz (%3,7). Arrazoiak, helduen eta, batez ere, adinduen baitan aurkitu behar dira, adin-talde horien mailan erabilpena erabat apaltzen baita. Horrela, lau urtean, %6,3 eta %6,4aren tartean kokatu ostean, bat-batean %3,3ra jaisten da 2006ean. Aldaketa, are eta argiagoa, baita bitxiagoa da adinduen baitan, zeren 1997 eta 2001aren tartean asko goratu ostean (+%4,7), zeharo desagertzen da bost urte beranduago, 10,2 punduko galera batekin.

Beherakada horiek, faktore soziodemografiko batzuei lotuak daude. Batetik, geroz eta gehiago, ipar Euskal Herriko biztanleria, kanpotik datozen zaharrek osatzen dute. Frantziako ipar eta ekialdetik datoz

Belaunaldi eta jatorri geografiko aldagaien eragina ezereztu ezkerro, berreskuratzeko prozesua nabariagoa litzateke.

Joera horren arrazoiak anitzak dira, hala nola, ez dutela euskara eskolan ikasi, ez daukatela eguneroko bizian euskara erabiltzeko aukera handirik geroz eta pertsona gehiago kostaldeko hirietan bizi baitira eta lana zein zerbitzuak bertan aurkitzen direlako, eta ez dutela euskara baliatzeko premiarik, ez lanean, ez administrazioarekiko harremanetan, ezta ere familiarekiko loturetan.

beraien erretiroa ipar Euskal Herrian igarotzeko, bizi kalitatea eta eguraldi ederra direla eta. Horietariko frango, Lapurdiko herrietan kokatzen dira, Urruñia ala Ziburu adibide direla. Baliabide ekonomikoak dauzkateenez, ordura arte bertako jendeak betetzen zituzten tokiak okupatzen dituzte, udalerrri horien egoera soziolinguistikoa eraldatuz. Bestetik, udalerrri horietako lurren eta etxebizitzaren prezioek gora egin dutenez eta bertako soldadak ez direnez hain azkar igo, bertako helduek, hau da lan egiten eta familia daukatenean, ezin dute xahupen horiei aurre egin. Gero eta gehiago dira, kostaldea uzten dutenak Lapurdi barnekaldera baita Baxe-Nafarrora bizitzera joateko, nahiz eta egunero joan-etorriak egin etxetik lanera joateko eta bertatik itzultzeko.

Haurren eta gazteen erabilpen mailak hobeak dira, gora egiten baitute. Horrela, haurren baliapena %4,8tik %5,6ra igaro da 1997 eta 2006a bitartean eta gazteena pixkanaka igo da, %2,3koa izanik 1997an, %3koa 2001ean eta %3,6koa 2006an. Egoera hori, euskarazko irakaskuntza eskara eta eskaintzaren gorakadari lotua dago zeren biztanleri kanpotar, nahiko gazte, kalifikatu eta dirudun horrek, euskararekiko sentikortasun eta interes bat adierazten duen une berean, eta herri horien biztanleriak azken urteetan nabarmen gora egin dutenez, ikastola eta gela elebidun berriak sortu dira. Hori dela eta, beraien haurrek erraztasun handiagoak dituzte euskara eskolan ikasteko.

Donibane Lohitzun eta Hendaia batzen dituzten hirugarren udalerrri motan, hau da 10 000-25 000 biztanle dituztenetan, euskararen erabilpenak berriz ere gora egiten du, 1997tik 2001era behera egin ostean. Hain zuzen ere, baliapen orokorra %4,2tik %3,6era igaro da, ondoren %5,1an kokatzeko. Alabaina, ezberdintasun nabariak daude adin-taldeen artean, zeren haurrek eta adinduek joera bera jarraitzen badute, helduek aurka-koa erakusten dute. Izan ere, 1997tik 2001era %3,3tik %4,5era igo ostean, %4ra beheratzen dira lau urte beranduago. Eta gazteen izaera bestelakoa da oraindik zeren, lehen lau urteetan zeharo gailendu ondoren, %1,6tik %5,1era igoz, geroztik antzeko mailan mantentzen da (%5,2). Datu horien irakurketa fidagarri bat egitea zaila da, gora-beherak handiak izateaz gain, joera kontraesangarriak ageri baitira, bai adin-taldeen artean, bai adin-talde bakoitzean.

Laugarren eta azken udalerrri motan, esan nahi baita Baiona, Angelu eta Biarritze hirietan, euskararen erabilpenak erregulariki gora egin du, %1,5ekoa baita 1997an, %2,2koa 2001ean eta %3,4koa 2006ean. Bilakaera ez da hain jarraikia adin-taldeen baitan zeren, haurren erabilpen maila antzeko bada, %1,7tik %2,5era pasaz, gazteena aldakorragoa da, 1997tik 2001a bitartean %0,8tik %0,5era jaisten baita eta geroztik %3,1era igo delako. Era berean, helduen erabilpena bikoizten da lehen fasean, %1,6tik %3,3ra igaroz, ondoren zerbait jaisteko (-%0,5). Eraldaketa sakonena adinduen baitan suertatzen da, egonkortasuna nagusi izatetik (%0,2ko hazkunde batekin), izugarritzko igoerara pasa baita, %7ra iritxiz.

ONDORIOZ NAGUSIAK

Beraz, 2006ko Euskararen Erabileraren V. Kale Neurkatak, honako joera nagusiak ageriak uzten ditu ipar Euskal Herriaren kasuan:

1. euskararen erabilpenaren beherakadak jarraitzen du, belaunaldi berrietako euskaldunak ez direlako nahikoak aurreko belaunaldiak ordezkatzeko eta elebidun hartzaileen kopurua elebidun osoena baino azkarrago igotzen delako,
2. haurren mailan berreskuratze bat ageri da, nahiz eta belaunaldi gazteak murrizagoak izanak eta kanpotik datorren biztanleriaren gorakadak, bere handitasuna gutxitu,
3. berreskuratze horren urritasuna, besteak beste, sistema elebidunaren nagusitasunari lotua dago, beti ere murgiltze sistemarekin alderatuta,
4. eraldaketa sozioekonomikoen (mugikortasun profesionalak eta etxebizitzaren garestitzeak) eta demografikoen (belaunaldi berrien txikitutasunak) eragin zuzena daukate,
5. euskararen ofizialtasun ezak eta hizkuntza politikaren edukiak, batez ere euskarazko irakaskuntzaren eskaintzaren garapena mugatzen dute.■

Geroz eta gehiago, ipar Euskal Herriko biztanleria, kanpotik datozen zaharrek osatzen dute. Frantziako ipar eta ekialdetik datoz beraien erretiroa ipar Euskal Herrian igarotzeko, bizi kalitatea eta eguraldi ederra direla eta. Horietariko frango, Lapurdiko herrietan kokatzen dira, Urruña ala Ziburu adibide direla.